

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBE-KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Balio Etikoak		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Filosofia. Euskara		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	-Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia -Teknologiarako konpetentzia -Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Maitane Nerekan María Luz Arranz	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-17

Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutzea eta finkatzea bere pribatutasun espazioarekin, gainerakoen nortasuna errespetatuz eta autoestimua garatuz, bizitza pertsonalari eta taldekoari era positiboan aurre egiteko. 2. Egoera hasiberrian bada ere, balio-sistema propio bat lantzea eta eratzea, norberaren bizi-proiektuaren esparru izan dadin, arrazoibidea, emozioen autoerregulazioa eta enpatia erabiltzearen bitartez egoerak	1. Lankidetzan arazoak ebatzea, gainerakoekiko jarrera irekia erakutsiz eta ikuspuntuak eta sentimenduak partekatuz. 2. Bizikidetzara-arauek proposatzea, prestatzea eta errespetatzea, elkarriketaren eta bitartekaritzaren bidez gatazka eraldatzeko. 3. Erantzukizun, elkartasun eta justizia sozialaren zentzua ulertzea, gogoeta-, sintesi- eta egituratze-ahalmena erabilia.

ikuspegi moraletik epaitzeko, behar bezainbateko burujabetasunez eta objektibotasunez.

3. Eguneroko bizimoduan eta taldeko harremanetan, ikasgelan, ikastetxean eta ingurune hurbilean burujabetasunez eta arduraz jokatzeko, besteekin inklusiboki erlazionatzeko trebetasun komunikatiboak eta sozialak baliaturik.

4. Herritarrek parte hartzeko eta antolatzeko dituzten hainbat modu ezagutzea, Euskadikoak batez ere, erreferentzia hurbileneko taldeen bizimoduan lankide izanez (familian, eskolan, auzoan, herrian), eta norberaren zein besteen ekarpenak balioetsiz, gainerakoekin partekatzeko eta elkarlanean aritzeko.

5. Bizikidetzaren arauak proposatzea, prestatzea eta errespetatzea, elkarrizketaren eta bitartekaritzaren bidez gatazka eraldatzeko eta guztien artean ingurune erkide jasangarri bat eraikitzeko.

6. Generoa, jatorria, etnia, sinesmena, desberdintasun sozial eta pertsonala, orientazio afektibo-sexuala, gaitasun desberdinak edo beste zeinahi arrazoirengatik sortutako bidegabekeriak eta diskriminazioak eragindako gatazka egoerak identifikatzea eta aztertzea, Giza Eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren zuzen eta berdintasunezkoa eragozten duten jokabideak arbuizatzen.

7. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik, haurren eskubideei buruzko Konbentziotik eta Estatuko zein autonomia-erkidegoko legeriatik eratorzen diren eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, beren gain hartzea eta aldezte, haien oinarrian dauden balioak identifikatu, berdintasunezko jarrerak sustatu, eta diskriminazioa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzeko, bereziki emakumezkoen eragiten dietenak, irizpideak izan ditzaten pertsonen eta taldeen jokabideei buruzko balioespen etikoak egiterakoan.

8. Ingurumenaren egoerari buruzko kontzientzia hartzea eta kontsumo osasungarri eta arduratsurako jarrerak garatzea, baita ingurunea errespetatzeko eta zaintzeko ere, gainerakoekiko zaintza eta errespetua barne

4. Dilema moral bat zer den ulertzea, eta dilema moralak ebaztea kultur desberdintasunen inguruko aurreiritziak hautemateko.

5. Norberaren balio-sistema elaboratzea, ikaslearen eskubideak eta betebeharrak bere gain harturik, eskolako egoerei buruzko epai moralak eginez eta, kasu praktikoetan, dilema moralak ebatziz.

6. Eskubide berdintasunaren aldeko aldarrikapena ez ezik, jaiotza, arraza, genero, orientazio afektibo-sexual, erlijio, iritzi edo beste zeinahi baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik baztertua ez izateko eskubidea errespetatzea eta gizarte-ingurunearen azterketan aplikatzea.

7. Adierazpen- eta iritzi-askatasun eskubideak eta pentsamendu-, kontzientzia eta erlijio-askatasuna babestu behar diren garrantzia adieraztea, azterketa eta sintesi lanak eginez.

8. Haurren eskubideen garrantzia ulertzea, egoera errealek balioetsiz eta, gizarte-testuinguruan, mutikoen eta neskatuen eskubide berdintasuna errespetatuz.

9. Bizitza zibikoan aktiboki parte hartzea gizonen eta emakumeen berdintasuna balioetsiz, bai eskubideei eta bai erantzukidetasunari dagokionez.

10. Gizon eta emakumeen eskubide berdintasuna eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan duten erantzukidetasuna ulertzea eta balioestea, gogoeta-, sintesi- eta egituratze-prozesuetan oinarritutako argudioak emanez.

11. Beste aukera batzuk errespetatzen dituen norberaren balio-sistema sortzea eta eskubide unibertsaletan oinarritutako juzku moralak egitea.

direla, bide-hezkuntzaren bitartez, haien kudeaketan erantzukizunez parte hartzeko.

9. Hizkuntzaren ulermena, ahozkoan zein idatzizkoan, landu baita hizkuntzaren erabilera zuzena zaindu ere.

12. Demokraziaren ezaugarriak ezagutzea eta adieraztea eta balio zibikoen garrantzia euskal gizarte demokratikoan.

13. Izadiko ondasunen erabilera arduratsua egitea eta ingurumenaren kontserbazioari laguntzea, gertakariak ulertuz eta interpretatuz, zergatiak aztertuz eta ondorioak auresanez.

14. Teknologia berriak erabiltzea, ingurune seguruetan balio sozialak eta zibikoak garatuz.

15. Ikastetxeko komunikazioan hizkuntza, ahozkoa zein idatzia egokiro garatuz erabiltzea.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje].

Astean saio bakarria daukagula kontuan izanik, saioa ikasturtean zehar landuko ditugun gaiak /proiektuak bideratzeko erabiliko dugu. Horretarako beharrezkoak izango dira teknologia berriak, koordinazioa egiteko ezinbesteko tresnak.

1. Proiektua / Arazo-egoera: Immigrazioa/Errefuxiatuak (Beti Iparralderantz liburuaren lanketa eta erakusketa- Jon Arretxe)
2. Hizkuntzen eskubideak.
3. Berdintasuna /Genero kontuak.

BALIABIDEAK :

-Baliabide analogikoak:

Testu libururik ez dugu erabiliko, geuk prestatuko dugun materiala, analogikoa zein digitala.. Apunteez gain, egunkariak, aldizkariak...informazio iturri diferenteetatik edango dituzte ikasleek.

-Baliabide digitalak:

Webgune interesgarriak, bloga, siteak, Google Gela, DVD, CD-ak...hau da, gure lana erraztu eta edukiak bideratuko dituzten tresnez baliatuko gara.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

Banakako, binakako zein taldeko lanak eta proiektuak bideratuko ditugu. Horretarako metodologia ezberdinetako puntu hauetan oinarrituko gara:

- 1.Aurrezagutzaren printzipioa: Eskolara baino lehen eta eskolatik at ikasitako gauza asko dago ikaslearen altxorrean, areago mundu mugikor eta aldakor honetan. Dakitenetik abiatuz eta elkarriketa sortuz abiatu beharra dago, funtzio hori betetzera dator ataria jarduera.

2. Egokitzapenaren printzipioa: Hezkuntzaren izaera hezitzailea indartu egin behar da. Ikasleak gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditugu, hau da errealitatean aplikatzen den jakintza, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena (jakintzak, prozedurak eta jarrerak). Gure ikasleek jakin eta egiten jakin behar dute, jakintza eta ekintza uztartuz.

3. Funtzionaltasunaren printzipioa: Bizitzarako balio dion zerbait bezala hartu behar du ikasleak eskolako jarduna. Horregatik du halako garrantzia zertarakoak. Beraz, haien errealitatean eta interesetan oinarritzen diren jarduerak proposatzen saiatu gara.

4. Printzipio eraikitzailea: Ikasketa proiektu-jardueren bidez ikasleak parte-hartze aktiboa du jakintzaren sortze-prozesuan, beti ere, irakaslearen laguntzarekin. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira, ikasleak bere ezagutza propioa autonomikoki eraikitzen duelako eta jakintza-maila diferenteetara egokitzen direlako, norberaren ahalmenera moldatuz. Proiektu osoen bidez erraztu egiten da oinarrizko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza-arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira, ikaslea da azken finean, informazioa lortu, hautatu, eraldatu eta prozesatzen duena, beraz subjektu aktiboa izanen da.

Beste aldetik, errealitatean eta haien interesetatik hurbil dauden proiektuak planteatuz motibatu egiten ditugu ikasleak. Beraz, ikaslea subjektu aktibo bihurtzen da ikaste-prozesuan. Hau kontuan izanik, irakaslearen papera aldatu egiten da. Irakasleak funtzio bi izango ditu: Alde batetik, irakasleak ikasleak motibatu egin beharko ditu ikerketa-proiektu motibagarriak eskeiniz eta beste aldetik, gidatu egin beharko du ikaskuntza prozesua argibideak eta baliabideak emanez eta esplorazioa bideratuz.

5. Talde-lanaren printzipioa: Zenbait ariketak bakar-lanean ematen du etekinik ederrena, baina elkar-lanean aritzeak garrantzi handia du gaur egunean. Beraz, bi eratako jarduerak planteatzen ditut unitate guztietan.

6. Diziplinartekotasunaren printzipioa: Proposatzen ditugun jardueren bidez arlo desberdinetako jakintzak uztartzen dira, beraz oinarrizko gaitasunen garapena bermatzen da. Ezin ahaztu, bestalde, euskara komunikazio tresna dela eta berez, ezinbesteko tresna dela edozein giza-harremanetarako.

7. Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3. ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Lanen eta proiektuen bidez landuko dugu irakasgai hau; beraz, arestion aipatutako lanen eta proiektuen emaitzak izango dira baloratuko ditugunak.</p>	<p>Lanak eta proiektuak 6 puntu</p> <p>Etixerakolanak, klaseko lana, koadernoak 2</p> <p>Jarrera (portaera eta euskararekikoa) 2</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación].</p>	
<p>Landutako gaiari buruzko proiektua entregatuko dute.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

--